



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

**2020KO URTARRILAREN 29an EGINDAKO
OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

Olaberrian, 2020ko urtarrilaren 29an, arratsaldeko 18:00 izanik Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira alkatea den Jokin Garmendia Asurabarrena eta Nerea Castaño Irazola (O.E.O), Elixabet Canales Segurola (O.E.O), Maider Agirre Mugika(O.E.O), Irene Irastorza Asurabarrena (O.E.O), Aitor Urkiola Ugartemendia (EH-BILDU) eta Pedro José Jauregui García (EH-BILDU) zinegotziak.

Elixabet Canales Segurola (O.E.O) zinegotziak bertaratze eza zuritu du.

Bertan dago eta fede ematen du Iñaki Alonso Antolin Idazkari Kontu-hartzaileak.

Osoko Bilkura legez osatzeko beharrezkoa den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztatu ondoren, gai zerrendako lehenengo puntua aztertzeari ekiten dio Udalbatzak.

**AURREKO BILKURAKO AKTAREN
ONARPENA, HALA BADAGOKIO.**

- 2019ko azaroaren 28an ospatutako Ohiko Osoko Bilkurari dagokion Akta.
- 2019ko abenduaren 20an ospatutako Ez-Ohiko Osoko Bilkurari dagokion Akta.

Bozketa burutu ondoren, bi aktan aho-batez onartzen dira.

**ACTA DEL PLENO ORDINARIO
CELEBRADO EL 29 DE ENERO DE 2020.**

En Olaberria, a 29 de enero de 2020, siendo las 18:00 horas se han reunido en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el alcalde, Jokin Garmendia Asurabarrena y los concejales, Nerea Castaño Irazola (O.E.O), , Maider Agirre Mugika (O.E.O) , Irene Irastorza Asurabarrena (O.E.O), Aitor Urkiola Ugartemendia (EH-BILDU) y Pedro José Jauregui García (EH-BILDU)

La concejal Elixabet Canales Segurola (O.E.O) ha excusado su asistencia.

Asiste y da fe del acto el Secretario-Interventor Iñaki Alonso Antolin.

Comprobado que asiste el número suficiente de concejales para la válida constitución de la Sesión Plenaria, la Corporación pasa a estudiar el primer asunto del orden del día.

**APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA
DE LA SESIÓN ANTERIOR.**

- Acta correspondiente al Pleno Ordinario de 28 de noviembre de 2019.
- Acta correspondiente al Pleno extraordinario de 20 de diciembre de 2019.

Tras efectuar la votación, ambas actas quedan aprobadas por unanimidad.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

ALKATETZAKO GAIAK

Alkatetza ebazpenen berri ematea.

Alkate jaunak dio joan zen batzorde informatzaileetan aurreko Osoko Bilkuratik aurrera emandako Alkatetza-Ebazpenen inguruko azalpena eman zela, 190/2019tik 13/2020 bitartera.

Udal-kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

AZPIEGITURA ETA HIRIGINTZA

Ihurre auzoan zerbitzu-azpigituentzako tokiko sistema bat mugatzeko 4 H.E.ko Plan Bereziaren hasierako onespena.

Jarraian, "Soroa Arquitectos S.L.P." egindako Ihurre auzoan zerbitzu-azpigituentzako tokiko sistema bat mugatzeko 4 H.E.ko Plan Bereziaren berri Osoko Bilkurari ematen zaio. Joan zen batzorde informatzailean gaiaren berri eman zitzaizen udal-kideei.

Espedientea eratzten duten agiriak ikusirik eta nahiko eztabaidatu ondoren, bozketa burutzen da honako akordio hauek hartzen direlarik Osoko bilkura honetara bertaratu diren 6 zinegotziek aho batez hartutako erabakiak:

LEHENENGO: Olaberriko Ihurre auzoan zerbitzu-azpigituentzako tokiko sistema bat mugatzeko 4 H.E.ko Plan Bereziari eta Ingurumen Dokumentu Estrategikoari hasierako onspena ematea.

BIGARRENA: Olaberriko Ihurre auzoan

TEMAS DE ALCALDÍA

Dar cuenta de los decretos de alcaldía.

El señor alcalde informa de que se dio cuenta en las pasadas comisiones informativas de los Decretos de Alcaldía adoptados a partir del último Pleno Ordinario, es decir, del 190/2019 al 13/2020.

Los corporativos quedan al corriente.

INFRAESTRUCTURA Y URBANISMO

Aprobación inicial del Plan Especial para la delimitación de un sistema local para infraestructuras de servicio en el barrio Ihurre, A.U. 4.

Seguidamente se da cuenta al Pleno del Plan Especial para la delimitación de un sistema local para infraestructuras de servicio en el barrio Ihurre, redactado por "Soroa Arquitectos S.L.P." Se expuso el tema a los corporativos en la pasada comisión informativa.

En vista de todo ello y analizados los documentos que forman el expediente y tras debatirlo suficientemente, se procede a la votación siendo los siguientes los acuerdos adoptados por unanimidad de los 6 corporativos asistentes a esta sesión plenaria :

PRIMERO: Aprobar inicialmente el Plan Especial para la delimitación de un sistema local para infraestructuras de servicio en el barrio Ihurre de Olaberria A.U. 4. y el Documento Ambiental Estratégico.

SEGUNDO: Someter a información



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

zerbitzu-azpigituentzako tokiko sistema bat mugatzeko 4 H.E.ko Plan Bereziari eta Ingurumen Dokumentu Estrategikoa jendaurrean jartzea 45 egun balioduneko epean Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Noticias de Gipuzkoa egunkarian argitaratuz:

pública el Plan Especial para la delimitación de un sistema local para infraestructuras de servicio en el barrio Ihurre de Olaberria A.U. 4. y el Documento Ambiental Estratégico por el plazo de 45 días hábiles mediante la publicación del anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y el diario Noticias de Gipuzkoa:

- a) *Erakusketa lekua:* Olaberriko Udaletxeko bulegoak eta web orria.
b) *Dokumentuak aztertzeko eta, hala badagokio, alegazio, iradokizun eta erreklamazioak aurkezteko epea:* 45 egun baliodun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara eman eta ondorengo egun baliodunetik kontatzen hasita.
c) *Alegazio, iradokizun eta erreklamazioak aurkezteko tokia:* Olaberriko Udaletxeko bulegoak.

- a) *Lugar de exposición:* Oficinas y página web del Ayuntamiento de Olaberria.
b) *Plazo para examinar los documentos y si procede, presentar alegaciones, sugerencias y reclamaciones:* 45 días hábiles, a partir del día hábil siguiente al de la publicación de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.
c) *Lugar de presentación de alegaciones sugerencias y reclamaciones:* Oficinas del Ayuntamiento de Olaberria.

HIRUGARRENA: Sektoreko eskumenak dituzten herri-administrazioei hasierako onespeneraren berri ematea, ezagutu dezaten eta txostena egin dezaten.

TERCERO: Notificar la aprobación inicial, para su conocimiento e informe, a las administraciones públicas con competencias sectoriales.

OGASUNA ETA UDAL ZERBITZU TEKNIKOAK

HACIENDA Y SERVICIOS TÉCNICOS MUNICIPALES

3.000 eurotik gorako fakturen onarpena.

Aprobación de las facturas superiores a 3.000 euros.

Hauek dira Osoko Bilkurara aurkeztu diren fakturak, bere onarpenerako:

Estas son las facturas que se presentan al Pleno para su aprobación:

ZKIA	IZENA	AZALPENA	KOPURUA
1	LIMPIEZAS ABANDO S.L.	Udal eraikinen garbiketa	4.871,93 €
2	SOROA ARQUITECTOS S.L.P.	Plan Berezia Ihurre	4.235,00 €
3	IMANOL GALARRETA LASA	Zezipio enean lehioak	10.806,51 €
4	GOITU ERAIKUNTZAK S.L.	Gainera auzoko obra 1.zert.	16.550,84 €
5	GOIEKI	Ekarpenak – 2020	9.516,41 €



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

6	IZFE	Kosto informatikoak	5.792,67 €
7	C. BURGOS V. Y OTRO S.C.	ITEn kudeaketa	9.413,80 €
8	GIPUZKOAKO URAK	Ur kontsumoa	12.338,70 €
9	GIPUZKOAKO URAK	Ur kontsumoa	53.982,93 €

Ondoren, fakturen onarpenerako bozketa hasten da, faktura zerrenda gehiengo absolutuz onartzen delarik, EH-BILDU taldeko zinegotzien abstentzioarekin.

Se procede a la votación de la propuesta, quedando aprobada la relación de facturas por mayoría absoluta, con la abstención de los concejales del grupo EH-BILDU.

Diruzaintzaren egoera: informazioa.

Udal-kideei, 2020ko urtarrilaren 20ri dagokion diruzaintzaren egoera aurkeztu zitzaizen joan zen batzorde informatzailean.

Udalak, kutxan, banketxe ezberdinetako kontuetan eta epe laburrera eginiko inbertsioen artean, guztira Udal eraikinen garbiketa kontratuaren esleipena. **2.864.821,20 euro** ditu.

Udal-kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

Situación de tesorería: información.

Se presenta a los corporativos en la pasada comisión informativa la situación de tesorería a fecha 20 de enero de 2020.

El Ayuntamiento dispone entre la caja, las cuentas en las distintas entidades y las inversiones a corto plazo, un total de **2.864.821,20 euros**.

Los corporativos quedan al corriente.

Gizarte Ekintza

- **Urtarrilaren 30eko greba orokorra “Lan-pentsio-bizitza duina”ri buruzko adierazpen instituzionala.**

Jarraian, Udal honetako bi talde politikoek adostutako adierazpenaren berri eman zaio Udalbatzari. Hau da:

Acción Social

- **Declaración institucional por motivo de la huelga general de día 30 de enero “Trabajo-pensión- vida digna”.**

Seguidamente se da cuenta al Pleno de la la declaración consensuada por los dos grupos políticos de este Ayuntamiento. La misma es la siguiente:

LAN- PENTSIO-BIZITZA DUINA URTARRILAK 30 GREBA OROKORRA

Lan- pentsio- bizitza-duinaren aldeko greba babesteko proposamena.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

SARRERA

Duela sei urte, sindikatu eta eragile sozial ugari herritarren eskubide sozialak biltzen dituen Karta osatu zuten, prozesu parte-hartzaile baten bidez.

Hego Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak bi urte daramatza pentsio duinen alde astero mobilizatzen; "Planto" egiteko beharra plazaratu dute.

Orain, mugimendu bien arteko konfluentzia eman da, pentsiodunen eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren artekoa, alegia, lan baldintza, pentsio eta bizitza duinaren aldeko borrokari aurre egiteko.

Konbentzimendu hirukoitz batek batu ditu: batetik, pentsioena denon afera da, oraingo pentsiodunena nahiz etorkizunekoena; bestetik, lan baldintza duinen aldeko borroka ezinbestekoa da; azkenik, eskubide sozialak bermatu behar dira. Finean, bestelako eredu sozio-produktiboa eraiki behar dugu, bizitza erdigunean jartzeko, zaintzari eta planetaren jasangarritasunari lehentasuna emanaz.

Ardatz nagusi hauekin bat egiten dugu: aberastasunaren birbanaketa, sektore publikoaren lidergoa, eskubideen unibertsaltasuna, euskararen normalizazioa, lurraldeen arteko oreka, jendartearen beharren arabera antolakuntza (lehen sektorea, azpiegiturak, merkantzien eta garraio sektorea...).

Horregatik, Euskal Herriko Karta Sozialak pentsiodunen mugimendurekin batera adostu duen adarrikapenekin bat eginez, ondorengo adierazpeninstituzionala egiten dugu.

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Olaberriako Udalak,

- 1.- Lan- pentsio- eta bizitza-duinaren aldeko grebari bere atxikimendua adierazi nahi die.
- 2.- Lan- pentsio- eta bizitza-duinaren aldeko greba egin ahal izateko erraztasunak eskainiko dizkie Erakundeko langileei.
- 3.- Euskal Herriko Karta Sozialak pentsiodunen mugimendurekin batera adostu duen Adarrikapen Taularekin bat egiten du, eta horregatik

3.1. Madrilen osatu den Gobernu berriari eskatzen dio

- 2011 eta 2013ko erreformetan onetsitako pentsio-murrizketak indargabetzea.
- Zapateroren eta Raxoiren lan-erreformak bertan behera uztea.
- Presazko izaeraz Seguritate Sozialaren eta Enplegurako Politika Pasiboen gaineko eskumenak transferi ditzala.

3.2. Gasteizeko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari eskatzen die

- 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzeko neurriak presazko izaeraz ezar ditzatela.
- Hileko 1.200 euroko gutxieneko soldata ezartzeko neurriak abiatu ditzatela.
- Hitzarmen kolektiboetan ultraktibitate mugagabea eta herrialdeko hitzarmenen aplikazioa estatu mailako hitzarmenen gainetik lehenetsiak izan daitezen sustapen lana burutu dezatela.
- Lanera bizirik itzultzeko eskubidea bermatzea.
- Lan Ikuskaritzako plantillak handitzea, Europar Batasunekoekin parekatu



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

arte, eta lan-istripuen eta laneko gaixotasunen aurkako ekintza planak abiatzea.

- Lan-harremanetarako eta babes-sozialerako esparru propioaren aldeko neurriak abiatzea.

3.3. Erkidego eta Lurraldeko Gobernuari eskatzen die

- Gizon eta emakumeen arteko soldata-arrakala eta pentsio-arrakala amaitzeko neurri zehatzak aktibatu ditzatela.
- Enplegu egonkorra sustatzea eta kontratazioan ematen den iruzurra zigortzea.
- Soldata gutxitu gabe lanaldia 35 ordura jaisteko neurriak abiatzea.
- Bereziki emakumei ezartzen zaizkien lanaldi partzial inposatuak ezabatzea.
- Zerbitzu publikoak garatzea, ezarritako murrizketak atzera botatzearekin batera.
- Kontratazioan sexuaren, jatorriaren, ideologiaren, sexu-identitatearen, aniztasun funtzionalaren edo ekonomia-jardueraren arabera diskriminaziorik egingo ez dela bermatzea.
- Klausula sozialak ezartzea administrazioko kontratazio guztietan.

4.- Olaberriko Udalean adostutako adierazpen hau Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari, Lurraldeko Gobernuari eta Euskal Herriko Karta Sozialari helaraziko zaie.

Bozketa egin da, eta aho batez onartuta geratu da.

Se procede a la votación, quedando aprobada por unanimidad.

EH-BILDU taldeko zinegotzia den Aitor Urkiola jaunak hitza hartzen du honako aipamen hauek eginez:

El concejal del grupo EH-BILDU Aitor Urkiola toma la palabra y manifiesta lo siguiente:

NO ES LO QUE HAY

Zertarako balio du Greba Orokorrak?

Normalizatuta daukagun prekarietatea desnormalizatzeko balio digu. Aliantzak eraikitzeke balio digu. Sistemak bakarrik nahi gaitu. Elkartzeak indarra ematen digu. Kolektiboa. Aldarrikapenak mahai gainean jartzeko balio dute eta hauei buruz hitzegitea. Hau sokatira tiraldi luze bat da.

Greba, aldarrikapena eta mobilizaziorik gabe, egoera okertzen da. Gaur ditugun eskubide gehienak greba, mobilizazio eta langile borrokan bidez lortu dira. Geldirik egoteak ez du esan nahi daukagun eskubideak mantentzen direnik, atzera egitea suposatzen du. Geldirik egoteak, sokak beste aldera tira egiten jarraitzen du. Sistemak “esto es lo que hay” makinaria martxan jartzen du. Borrokkak merezi du...Bihar Urtarrilak 30 Greba Orokorra!

Udaletxeko Pertsonala

- **2020. urterako langileen egutegia.**

Personal del Ayuntamiento

- **Incremento Retribuciones para 2020.**



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Jarraian, Eudelek 2020rako ordainsari-
ezarpenei buruz bidalitako gomendioaren
berri eman zaio Osoko Bilkurari.
Hona hemen gomendio hori:

Seguidamente se da cuenta al Pleno de la re-
comendación remitida por Eudel en relación a
los incrementos retributivos para 2.020.
Esta recomendación es la siguiente:

**2020KO ORDAINSARIEN GEHIKUNTZEI BURUZKO
INFORMAZIO-ORRIA
2/2020 ERREGE LEGE-DEKRETUA**

**CIRCULAR INFORMATIVA INCREMENTOS
RETRIBUTIVOS 2020
REAL DECRETO-LEY 2/2020**

2020ko urtarrilaren 22an, ***2/2020 Errege Lege-dekretua, urtarrilaren 21ekoa***, argitaratu da Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE), ***sektore publikoaren esparruko ordainsariei buruzko premiazko neurriak hartzekoa***.

El 22/01/2020 se ha publicado en el BOE el ***Real Decreto-Ley 2/2020, de 21 de enero, por el que se aprueban medidas urgentes en materia de retribuciones en el ámbito del sector público***.

Aipatutako Errege Lege-dekretu horrek sektore publikoko langileen ordainsarien gehikuntzak arautzen ditu 2020. urteari begira, eta, ildo horretatik, soldata igoera finko bat, eta, ekonomiaren hazkundearekin lotuta, ehuneko osagarri bat gehitzea aurreikusten du. Zehazki, sektore publikoaren zerbitzura ari diren langileen gehikuntzak onartzeko ezinbestekoak diren zenbait alderdi arautzen ditu berariaz, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera eraginkorrak izango direnak; modu zehatzagoan, % 2ko igoera finkoa eta funts gehigarrietako % 0,3ko igoera xedatzen ditu; azken horiek, hain justu, produktibitatea edo eraginkortasuna hobetzeko plan eta proiektuetarako banatzen direnei dagozkie, eta, administrazio bakoitzean, erakunde sindikalekiko negoziazioekin daude lotuta.

El referido Real Decreto-Ley regula los incrementos retributivos para los empleados públicos para el año 2020 y en tal sentido prevé un incremento salarial fijo, más un porcentaje adicional de incremento ligado al crecimiento de la economía. En particular, regula exclusivamente aquellos aspectos indispensables para aprobar con efectos de 01 de enero de 2020 el incremento retributivo del personal al servicio del sector público y establece, de manera más precisa, una subida fija del 2% y de un 0,3% de fondos adicionales que se reparten para la implantación de planes o proyectos de mejora de la productividad o la eficiencia y están sujetos a negociación con las organizaciones sindicales por cada Administración.

Zehatz-mehatz, hauxe xedatzen du **2/2020 Errege Lege-dekretuak 3.Bi artikuluan**:

En concreto, el **art. 3. Dos del Real Decreto-Ley 2/2020** dispone lo siguiente:

Bi. 2020an, sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileen ordainsariak ezin izango dira gehitu 2019ko abenduaren 31n indarrean zirenak baino ehuneko bi baino gehiago, homogeneousaren arabera bi aldietarako, langileei dagokienez nahiz haien antzinasunari begira. Xede horretarako, 2019ko ordainsarietan, BPGd-aren bilakaerari lotutako ehuneko 0,25eko gehikuntza urteko zenbatekotan hartuko da aintzat. Oro har, gizarte-ekintzako gastuek 2020an ezin izango dute izan gehikuntzarik 2019koekiko. Horri dagokienez, gizarte-ekintzako gastuak onurak, osagarriak edo hobekuntzak direla jo da, ez daukatenak zerikusirik egindako lanaren kontraprestazioekin, azken horien xedea zenbait premia asetzeari baita, sektore publikoaren zerbitzura diharduten langile horien gorabehera pertsonalen ondorioz.

Dos. En el año 2020, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 2 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2019, en términos de homogeneidad para los dos periodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo. A estos efectos, en las retribuciones de 2019 el incremento del 0,25 por ciento vinculado a la evolución del PIB se considerará, en cómputo anual. Los gastos de acción social, en términos globales, no podrán experimentar ningún incremento en 2020 respecto a los de 2019. A este respecto, se considera que los gastos en concepto de acción social son beneficios, complementos o mejoras distintos a las contraprestaciones por el trabajo realizado cuya finalidad es satisfacer determinadas necesidades



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

consecuencia de circunstancias personales del citado personal al servicio del sector público.

Horrez gain, Barne Produktu Gordinaren gehikuntza, 2019ko prezio konstanteetan, ehuneko 2,5era edo gehiagora iritsiko balitz, soldata beste % 1 igoko litzateke 2020ko uztailaren 1etik aurrera. Adierazitako ehuneko 2,5 horretatik beheragoko gorakaden kasuan, gehikuntza proportzioan murriztuzko da, aipatutako ehuneko 2,5 horrekiko izan duen murrizketaren arabera; beraz, hauek izan dira gehikuntzak oro har:

- BPGd-a 2,1 bada: % 2,20
- BPGd-a 2,2 bada: % 2,40
- BPGd-a 2,3 bada: % 2,60
- BPGd-a 2,4 bada: % 2,80

Además de lo anterior, si el incremento del Producto Interior Bruto (PIB) a precios constantes en 2019 alcanzara o superase el 2,5 por ciento se añadiría, con efectos de 1 de julio de 2020, otro 1 por ciento de incremento salarial. Para un crecimiento inferior al 2,5 por ciento señalado, el incremento disminuirá proporcionalmente en función de la reducción que se haya producido sobre dicho 2,5 por ciento, de manera que los incrementos globales resultantes serán:

- PIB igual a 2,1: 2,20 %.
- PIB igual a 2,2: 2,40 %.
- PIB igual a 2,3: 2,60 %.
- PIB igual a 2,4: 2,80 %.

Atal honetan xedatutakoaren ondorioetarako, BPGd-a igotzeari dagokionez, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) urte bakoitzean argitaratutako BPGd-aren aurrerapenaren estimazioa hartuko da kontuan. INEk BPGd-aren aurrerapena argitaratu ondoren, eta enplegu publikoa eta lan-baldintzak hobetzeko 2018ko martxoaren 9ko jarraipen-batzordeari jakinarazita, igoera aplikatzea onetsiko da, hala badagokio, Ministro Kontseiluaren erabaki bidez. Erabaki horren berri emango zaie autonomia-erkidegoei, hiri autonomoei eta Udallerri eta Probintzien Espainiako Federazioari.

Gainera, soldata-masaren ehuneko 0,30eko gehikuntza osagarria baimendu ahal izango da, besteak beste, produktibitatea edo eraginkortasuna hobetzeko plan eta proiektuak ezartzeko, funtzio parekagarriak dituzten lanpostuen artean dauden osagarri espezifikoak berrikusteko, destino-osagarriak homologatzeko, edota pentsio-planetako ekarpenetarako.

Aurrekoa kontuan hartuta, 2/2020 Errege Lege-dekretua indarrean sartu ondoren, eta 2018ko eta 2019ko ekitaldietako ordainsarien gehikuntzei dagokienez EUDELek egin izan duenari jarraiki, Euskadiko udalei honako gomendio hau egitea egoki dela deritzo EUDELek, izan daitezkeen interpretazioak argitzen laguntzeko:

GOMENDIOA

- **3.Bi artikuluko lehen paragrafoan** adierazten denari dagokionez, legeak baimendutako maximoa

A los efectos de lo dispuesto en este apartado, en lo que a incremento del PIB se refiere, se considerará la estimación avance del PIB de cada año publicada por el Instituto Nacional de Estadística (INE). Una vez publicado el avance del PIB por el INE y, previa comunicación a la Comisión de Seguimiento del Acuerdo para la mejora del empleo público y de condiciones de trabajo de 9 de marzo de 2018, mediante Acuerdo del Consejo de Ministros se aprobará, en su caso, la aplicación del incremento. Del citado Acuerdo se dará traslado a las Comunidades Autónomas, a las Ciudades Autónomas y a la Federación Española de Municipios y Provincias.

Además, se podrá autorizar un incremento adicional del 0,30 por ciento de la masa salarial para, entre otras medidas, la implantación de planes o proyectos de mejora de la productividad o la eficiencia, la revisión de complementos específicos entre puestos con funciones equiparables, la homologación de complementos de destino o la aportación a planes de pensiones.

A la vista de lo anterior, tras la entrada en vigor del Real Decreto Ley 2/2020, y tal y como EUDEL ha venido haciendo en lo referente a los incrementos retributivos de los ejercicios 2018 y 2019, en aras a aclarar sus posibles interpretaciones, EUDEL, considera oportuno formular a los Ayuntamientos Vascos la siguiente:

RECOMENDACIÓN

- En relación con el **párrafo primero del referido**



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

gehitzea langileen ordainsaria, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginkortasunarekin; hau da, 2019ko abenduaren 31n indarrean zirenekiko %2, homogeneotasunaren arabera bi aldietarako, langileei dagokienez nahiz haien antzinasunari begira.

- **3.Bi artikuluko bigarren blokean** zehazten denari lotuta, eta kontuan hartuta Barne Produktu Gordinaren gehikuntza batzuen kasuan soldatak beste % 1 arte igotzeko aukera biltzen duela, gaur egun ez dakigu beteko den premisa hori, eta, ildo horretatik, Ministroen Kontseiluak zehazten eta onesten duena hartuko da kontuan. Dena dela, eta 3.Bi artikuluan xedatzen denarekin bat etorrita, gehikuntza horrek 2020ko uztailaren 1etik aurrera izango du eragina.
- **3.Bi artikuluko azken paragrafoak** soldatamaren % 0,30eko gehikuntza osagarria egiteko aukera arautzen du, eta, udal-autonomiaren kalterik gabe, honako **gomendio** hau egiten diegu Euskadiko udalei: finantzen eta aurrekontuen esparruan dituzten aukeren neurrian, soldatamaren % 0,30eko gehikuntza osagarria onets dezatela. 3.Bi artikuluko horretan jasotzen diren lege-formulen arabera banatuko da zenbateko hori, edo aplikagarri den beste edozein formularen arabera, udal-autonomiaren eta negoziazio kolektiboaren esparruan, betiere.

GOMENDIO honen bidez, lege-agindu horren irismen juridikoa argitu nahi izan du EUDELeK, eta argi erakutsi nahi izan du, gainera, lege-agindu hori legediaren barnean langile publikoentzat modurik onuragarrienean interpretatzeko duen interesa; guztia, erakundearen eraginkortasunean eta lan-ingurunearen kalitatean aurrera egiteko asmoz, horrek guztiak bihar-etzi negoziazio kolektiboaren esparruan aurrera egiteko bidea erraztuko duen ustez, eta UDALHIITZ Akordio Arautzaile berria lortzeko lagungarri izango delakoan, betiere.

EUDELeK argi adierazi nahi izan du berriro zeinen garrantzitsua den "2008-2010 UDALHIITZ Akordioa" bere osotasunean betetzea, bermerik handiena lortutako akordioak betetzeak adierazten baitu, zalantzarik gabe;

art. 3 Dos, incrementar, con efectos 01/01/2020 las retribuciones del personal el máximo legal permitido, esto es, un **2,00%** respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2019, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo.

- En relación con el **segundo bloque del referido art. 3. Dos**, que recoge la posibilidad de otro incremento salarial de hasta un 1% añadido en caso de unos determinados crecimientos del Producto Interior Bruto, a fecha de hoy se desconoce si se cumplirá dicha premisa y en tal sentido se estará a la concreción y aprobación correspondiente en su caso por Consejo de Ministros. En cualquier modo, y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 3. Dos, dicho incremento, en su caso, se añadiría con efectos 01/07/2020.
- En relación con el **último párrafo del referido art. 3. Dos**, que regula la posibilidad de un incremento adicional del 0,30% de la masa salarial, y sin perjuicio de la autonomía municipal, **recomendamos** a los Ayuntamientos Vascos a que, en la medida de sus posibilidades financieras y presupuestarias, procedan a autorizar un incremento adicional del **0,30%** de la masa salarial. Dicha cuantía, se distribuirá mediante las fórmulas legales que se refieren en el art. 3. Dos, último párrafo, o cualesquiera otras que resultaran de aplicación, todo ello en el marco de la autonomía municipal y negociación colectiva.

Por medio de esta **RECOMENDACIÓN**, EUDEL pretende aclarar el alcance jurídico de este precepto legal a la vez que dejar constancia de su interés en interpretarlo, dentro de la legalidad, de la manera más favorable para el personal público, todo ello en aras a proseguir avanzando en la eficacia de las instituciones y la calidad de su entorno laboral, confiando en que todo ello permita allanar el camino para futuros avances en el marco de la negociación colectiva que debe tender a la consecución de un nuevo Acuerdo Regulador UDALHIITZ.

EUDEL reitera la importancia de que el "Acuerdo UDALHIITZ 2008-2010" sea cumplido en sus términos, ya que es en el cumplimiento real de los acuerdos



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

gainera, sektorean akordio berri bat lortzeko legitimazioa erabada. Zentzu horretan, gaur egungo 2008-2010 UDALHITZ Akordioa betetzerakoan suma zitezkeen gabeziei konponbidea emateko baliabidea litzateke erakunde bakoitzean antolatutako "Jarraipen Mahaia", azken informazio-orrietan gogorarazi dizuegunaren ildotik. Gogorarazi nahi dizuegu mahai horien xedea, berariaz, egungo 2008-2010 UDALHITZ Akordioan bete gabe utzitako alderdiei konponbidea emateko akordioak egiten laguntzera mugatzen dela, eta ez dutela ireki behar horietatik kanpoko gaiak negoziatzeko prozesurik; azken horien aplikazio-eremua, zehazki, EUDEL en eta sindikatuen arteko UDALHITZ Negoziazio Mahai Orokorrean datza.

Gai hau ez dago gaurko gai-zerrendan sartuta, eta, beraz, eztabaidatu baino lehen, gaiaren premia lehenbailehen bozkatu behar da. Urgentzia horren arrazoia da urtarrileko nominak berehala ordaindu behar direla eta onartzen diren soldata-igoerak nomina horietan jaso behar direla.

Urgentzia hori bozkatu ondoren, aho batez onartu da.

Aztergaien zerrendan sartzea erabaki ondoren, Eudelen gomendio hori onartzea bozkatu, eta aho batez onartzen da. Beraz, urtarrilaren 1etik aurrera, Eudelen gomendio horren arabera igoko dira soldatak.

alcanzados donde radica su principal garantía, sirviendo además como legitimación para la consecución de un nuevo acuerdo sectorial. En tal sentido el instrumento para subsanar las posibles deficiencias del cumplimiento del actual UDALHITZ 2008-2010 debiera ser, tal y como les venimos recordando en las últimas Circulares, las "Mesas de Seguimiento" habilitadas en cada institución. Les recordamos que el objeto de estas mesas se circunscribe, exclusivamente, a facilitar acuerdos para la subsanación de los posibles incumplimientos puntuales que puedan darse en el actual Acuerdo UDALHITZ 2008-2010, y que deben abstenerse de abrir cualquier proceso negociador de materias ajenas, cuyo ámbito de aplicación radica en la Mesa de Negociación General UDALHITZ entre EUDEL y las centrales sindicales.

Este tema no se haya incluido en el orden del día de hoy, por lo que antes de tratarse, se somete a votación la urgencia del mismo. Esta urgencia viene motivada por el hecho de que es inminente el pago de las nominas del mes de enero y para que se refleje en las mismas los incrementos salariales que se aprueben.

Sometida a votación esta urgencia es aprobada por unanimidad.

Una vez acordada su inclusión en el orden del día se somete a votación la aprobación de esta recomendación de Eudel, resultando aprobada por unanimidad. Por tanto desde fecha 1 de enero se incrementarán los salarios de acuerdo a esta recomendación de Eudel.

Galde-erreguak

EH-BILDU taldeko zinegotzia den Aitor Urkiola jaunak hitza hartzen du honako aipamen hauek eginez:

Ruegos y preguntas

El concejal del grupo EH-BILDU Aitor Urkiola toma la palabra y manifiesta lo siguiente:

- **BESTE LAN HERIOTZ BAT OLABERRIKO ARCELORREN**



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Garraiolari bat hil da Olaberriako Arcelor enpresan zamalanak egiten ari zenean. Lehenik eta behin, elkartasuna adierazi nahi diegu hildakoen senide, lagun, lankide eta gertuko guztiei. Modu berean adierazi nahi dugu heriotz berri honekin, Hego Euskal Herrian, 2020. urtea hasi berri den honetan, hildako zazpigarren langilea dela.

Lehen datuen arabera, hildako garraiolaria zamalanak egiten ari zen eta ibilgailua gainera etorri zaio, eta beste kamioi baten kontra zanpatu du. Garraiolaria berehala zendu da. Antzekotasun handiko beste istripu bat gertatu zen lantegi berean, Olaberrian, 2013an. Beste garraiolari bat hil zen orduan.

Bertako langileek adierazi digutenez, egunero 200 kamioien joan etorriko media dago urtean zehar. Bi baskulen aurrean sortzen den eguneroko egoera arriskutsua nabarmena da. Kamioiak nun nahi, enpresatik kanpo bide ondoko espaloietan kamioiak aparkatuta. Prebentzioa eta ardurak hartu behar dira egoera hauek saihesteko. Sarritan aipatzen da segurtasunean gastatzen dena ez dela kostua inbertsioa baizik.

Pedimos a Arcelor Mitall se haga una reflexión sobre algunos puntos que querríamos tratar de esta parte de este Ayuntamiento.

- El tránsito de camiones (entradas/salidas) que existe en estas dos zonas. Dos basculas. Afecta a la movilidad dentro de la fábrica y fuera de la fábrica. Camiones en la vía y en las aceras, la Ertzantza poniendo multas y obligándoles que no se queden en la vía y mientras los camiones cargados dando vueltas en la zona y en el entorno.
- 200 camiones de media al día.
- Se da la información de riesgos a los camioneros nuevos que entran en la factoría?
- Hay un plan de movilidad para dentro de la fábrica? Y para el entorno? Están identificados estos riesgos en las evaluaciones de riesgos?
- Somos conscientes de esta problemática y afecta directamente al municipio de Olaberria.
- Udal honek gai honekiko ere bere ardurak baditu eta neurriak hartzera dagokigu arazoa identifikatu eta irtenbide bat emateko.
- Udal honi gaiaren inguruan, Arcelorreko GGBB-tako eta prebentzio zerbitzuko departamentuekin bilera bat eskatzea exijitzen dugu EH Bildutik, mugikortasun batzordea dagokigun aldetik.

Alkateak hitza hartzen du zera adierazteko:

El Alcalde toma la palabra para manifestar lo siguiente:

Oso zaila da gai honi irtenbidea ematea; izan ere, kamioien joan-etorriak eragindako guneak Arcelorren edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzakoak dira (N-1 errepidea). Batzuetan tenis-pisten ondoko zabalgunea erabiltzen



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

uzteko aukeraz hitz egin da, baina herriari ez zaio interesatzen; izan ere, horrela eginez gero, kamioiekin dituzten arazoak guri helaraziko dizkigute. Dagoeneko hainbat aldiz hitz egin da enpresarekin, eta haiek eskuak garbitzen dituzte, etortzen diren kamioi kopuruaren gaineko kontrolik ez dutelako. Dena dela, ez dago inolako eragozpenik Arcelorrekin edo Aldundiko errepide sailarekin berriro hitz egiteko.

Eta aztertzeke beste gairik egon gabe, Alkate jaunak bukatutzat ematen du bilkura 18:40ak direnean, eta nik, Udalbatzako Idazkariak, adierazitako guztiaren Akta egiten du

Y sin más asuntos por tratar, el Sr. Alcalde da por terminada la sesión cuando son las 18 horas y 40 minutos, y yo, Secretario de la Corporación, expido el Acta de todo lo manifestado.

ALKATEA / EL ALCALDE

IDAZKARIA / EL SECRETARIO